

esanetara dago, eta hark agintzen dituen zigorrak egikaritzen ditu. Gizatar ahobero bat ez ezik, bere seme autistaren amarengandik banandutako txorigaldua ere bada. Ondorioz, noraezean eta aztoratuta dabil delinkuentea. Barrettek hoztasunez eskaneatzen du pertsonaia, eta, lantzean behin, zidor katramilatu horretatik ateratzen lagun liezaioketen heldulekuak jartzen dizkio eskura.

### Hiri inguruak

2022an kaleratutako *Homesickness* antzeko eremuan mugitzen den arren, Barrettek periferian kokatu ditu kontakizunak, hiritik hogeitaz kilometrorra, porlanak eta altzairuak satsarekin bat egiten duten bidegurutzetara herdoilduan. Barretten hitzetara ekarrita, «insentsibilitatearen lautada zabal eta mugagabea». Hala, zortzi istorioetatik sei Kanadan idatzi izanagatik ere, gehienak Irlandan gertatzen dira; hain zuzen ere, idazlea jaio zen Mayo konderrian.

Glanbleigh herria leporaino betetzen duten galtzailez josia dago *Herrimina*; tartean, droneak gidatzen dituzten eta eskopeta aldean daramaten baserritarrak; idazle izan nahi duen baina aita alkoholikoaren harlauzak bizkarra kraskatzen dion gizajoa edo futbolari karreza ezerezean gelditu zaion kirolari gaztea, zeina herrira bueltatu den aitak zuzentzen duen auto kontzesionarioan lan egiteko. Eta alproja horiek guztiek irlandarren ohiko kartografian egiten dute topo, batez ere pub-etan, non Guinness garagardoa ezinbesteko olioia den organismoa egoki koipeztatzeko. Halere, ospitaleak eta hiletak ere maiz agertzen dira mapa literario horretan.

Antzekotasunak gorabehera, idazlearen bigarren lan hau lehenengoari gailentzen zaio, batez ere elkarriketek haizatzen duten mailagatik, non, beste behin ere, gehiago adierazten duten esaten ez dutenaren bidez, agerian azaltzen dutenaren bitartez baino:

«—Gauza bat esan nahi dizut —hasperen egin zuen Murtek.

—Esan.

—Deprimituta egotea amets batean egotea bezala da; izan ere, zure inguruko guztiak ere deprimituta dauden susmoa duzu, baina haiek ez dute horren berri. Edo, okerrago, zure alderdiak direla susmatzen duzu, adierazpenak.


—Ez dizut ulertzen —onartu zuen Eileenek».

### KRIKA

## Erabili eta pasa

Irati Majuelo

**G**enozidio baten erdian, zertarako balio du liburu batek? Erantzun zaila duen galdera da. Eskuarki, inor bonba-jasatik babesteko ez. Alabaina, erabateko aldaketarik lortuko ez duela jakin arren, pentsatzera, mintzatzera, kalera ateratzera bultzatu dezake idazki batek. Errelatoa borroka dezake. Informazio kontrajarriaren eta harrabots komunikatiboaren aurrean pausa eta argia eskaini. Halako zerbait pentsatuko zuten Katakarak editorialean, baita Amaia Astobiza eta Iñigo Roque itzultzaileek ere, Palestinaren okupazioaz eta kolonizazioaz lana argitaratzea erabakitzerakoan. Lurralde osoa suntsituta, Israelgo armada Rafahra sartzeaz delako iritsi da irakurleon eskuetara liburu hau, «erabili eta pasa» dioen liburu hau.



**'PALESTINAREN OKUPAZIOAZ ETA KOLONIZAZIOAZ'**  
Idazlea: Perry Anderson.  
Itzulzaileak: Amaia Astobiza, Iñigo Roque.  
Argitaletxea: Katakarak.

Perry Anderson historialari eta saiakeragilearen bi artikulu ezagun biltzen dira lan honetan, *New Left Review* aldizkari entzutetsuan argitaratuak biak ala biak. 2001ekoa da bata, 2015ekoa bigarrena. Egungoa ulertzeko, atzera iraganera begiratzea proposatzen du liburuak.

*Presaka Beetlemerantz* deritzon artikulua Israelen sorrera-egitasmotik abiatzen da, eta XX. mendea zeharkatzen duten gertakizunak aletzen ditu bigarren intifadara arte. Hala, besteak beste, agerian uzten ditu juduak lur hautatura bideratzeko asmoak —Erresuma Batua eta bi Mundu Gerlen ondorioak tarteko— atzean izan zituen interes inperialistak, palestinarren lurretan praktikan jarri ziren politika kolonizatzaileak eta Israelen AEBekiko menpekotasun harremana. Bi nazionalismoaren arteko «norgehiagoka» modura definitzen du gatazka Andersonek; norgehiagoka erabat desorekatua dela azpimarratzen du, hala ere.

Bigarren artikulua, *Siongo etxea* izena duenak, 2001etik aurrerako testuinguruari heltzen dio, zeinak Andersonek hasieratik seinalatu gisa, palestinarentzat ez duen hobera egin: «Orduz gero,

zenbateraino aldatu da?». Aurrekoaren bidetik, begirada historikoa oinarri duela mintzo da idazlea, baina gehiago lantzen du saiakeraren alorra, batik bat Palestinako agintarien gidaritzazalantzan jarri, Israeliek izan dezakeen etorkizunari buruz espekulatu edota Estatu bakarraren-bi Estaturen aukerez gogoetatzerakoan.

Oinarri historiko sendoko saiakera politikoa osatzen dute bi artikuluek, honenbestez. Liburu laburra da, trinkoa, dentsitate handikoa. Informazio ugari biltzen du, xehetasunak pilatzen dira oin-oharretan, eta ez beti azalpen luzez lagundurik. Beraz, ezin esan irakurraldi arin batez irensten den lana denik. Begirada pausatua behar du aipatzen diren izenak, datak, erakundeak ongi lotu eta puzzlea osatzeko. Akaso, denbora apur bat hartzea da egin dezakegun gutxienekoa. ●

### KRIKA


## Sentsibilitate kontua Jolas liburuak

Imanol Mercero

**H**ogei urte igaro dira lehen argitalpenetik eta berriz datorkigu, makillaje lanekin berrituta, oraingoan Erein argitaletxearen eskutik.

Esan daiteke funtsean aldaketa gutxi izan direla, testua garai batekoa delako, orrazkera minimo bat egin ostean. Tipografian letra tamaina apur bat txikitu dute —hau bai izan dela hobekuntza— lehen edizioaren gehiegizko tamainak izutzeko bidea ematen duelako, balizko irakurlea 8 urtekoa, edo zaharragoa denean. Aldatu dute ere paragrafoen egitura, lehen lerro etenen bidez antolatuta zutena orain puntu eta jarrai bidez emanda dagoelako, benetako paragrafoak osatuz.

Ilustrazio lana bai aldatu dela, lehen hartan Emilio Urberuagak egin baitzuen, eta oraingoan Ivan Landak. Harrigarria gertatzen da Landak



**'ELEFANTE TXORI-BIHOTZA'**  
Idazlea: Mariasun Landa.  
Ilustratzailea: Ivan Landa.  
Argitaletxea: Erein.

hartu duen ildo, Urberuagaren ilustrazioen kopia-bertsioa eginda. Ez dakit zuzena izan den erabakia.

Kontakizuna gogoan ez duzenoi, esan gutun gisan idatzitakoa dela, eta kontatzen dela elefanteekin irakasle jarduten duen batek bere ikasleen izaera nola deskribatzen duen, goraiatzeko txori-bihotza dutenak, alegia, ohi baino sentsibilitate handiagoa dutenak. ●

### KRIKA


Imanol Mercero

**N**erea Loiolaren ekimenez, Eskapu Liburuak bilduma argitaratzen hasi ziren 2022an, 1980ko hamarraldian hain ospetsu egin ziren jolas liburu haien arrastoari jarraikiz. Urtean ale bateko erritmoarekin, bigarren titulua Durangoko Azokako atarian plazaratu dute, 2023ko azaroan.

Egileak bideo aurkezpenean adierazi zuen bigarren hau «konplexuagoa» dela, «bai istorio eta bai egitura aldetik», eta arrazoia du, dudarik gabe.

Liburu mota hauek jolas liburu gisa definitzen dira, eta gutxienez bi ezaugarri hauek dituzte. Bat: irakurlea izaten da protagonista, narratzaileak erabiltzen duen *zu*-aren bidez. Eta bi: kontakizunaren garapena irakurlearen parte hartzearen bidez osatzen da.

Parte hartze hau bi modutan gertatzen da liburu haue-



**'AZKEN DENBORA'**  
Egilea: Nerea Loiola Pikaza.  
Argitaletxea: Erein.

tan: atal amaieran ekitzaren jarraipena zein izango den erabakita (*Aukeratu zeure abentura*), edo buruketa logiko-matematikoak ebatzita (*Puzzle Adventure*).

Istoriario dagokionez, irakurleak erraz aurki ditzake Michael Enderen *Momo* lanarekin paralelismoak, eta zinez lagungarria izango zaio jakintza hori, gainerakoan nekeza suertatzen baita tramari jarraitzea. ●